

(AURREKO ORRIALDETIK DATOR)

Nafarroan, gaur egun dagoen ekoizpenarekin, posible da bezero gehiagorengana iristea. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, landutako produktuen %85 barne merkatuan kontsumitzen direla azpimarratu du Ekonekazaritza elkartea. Esaterako, Spainian produkzioaren %80 esportatzen da, barne eskaera txikia delako.

Jose Antonio Suso Jaurlaritzako Nekazaritza Politika eta Industriako sailburuordeak ez du zalan-tzarik. «Oraindik eskaera ez da oso handia, baina etorkizunera begira hazteko aukera handia duen sektorea da». Onartzen du azken hamar urteetan egin den bidea. Gaur egun, nekazaritza ekoizpen guztien %3 ekologikoa da, baina, aurrera begira, %20raino iritsiko dela aurreikusi du departamen-duak.

Susoren aburuz, denda berezi-tuetan edo merkatuetan egiten den salmentatik haratago begira-tu behar dute produktoreek, eta hi-permerkatuan edo saltoki handieitan sartzea pentsatu behar dute. «Azken finean, kontsumitzaleak dagoen tokietan egotea da salmen-tziurtatzeko modurik onena».

Ikuspuntu horrek talka egiten du ekoizle askoren iritziarekin. «Jendearengana ahalik eta elika-gai osasuntsuenak eta merkeenak helaraztea bada geure asmoa, baina saltoki handiak ez daude horre-tarako prest. Produkzio sistemak mugatzen dizkizute, eta nola edo zenbat kobraztuko duzun ezartzen dizute», azaldu du Josu Samaniegok, Arabako ekoizle beteranoak. Argi dauka ez dela norabide hori hartu beharrekoa. «Beste bide batzuk bilatzen ari gara; esaterako, erreferentzia toki bat izatea hirietan, edota ekopoltsak prestatzea, merkatu joan ezin den pertsona-ri etxeraino eramateko ortutik ate-ratz dena».

Alternatiba bideragarria

1980an heldu zion Josu Samaniegok era ekologikoan lan egiteko asmoari. Garai horretan ez zegoen deus ere Hegoaldean, eta Frantziar-ja behar izan zuen aholku eske. Orain, batik bat, animalientzako bazka eta barazkiak landatzen ditu, San Martin del Fierron (Araba). Abeltzaintza ekologikoa egiteko, ezinbesteko baldintza da pen-tsua modu jasangarrian tratatu izana.

Haiena alternatiba bideragarria eta etorkizun handikoa dela uste du, eredu tradizionalaren gainbehera ikusita. «Munduko Merkata-ritza Erakundeak 2012. urtearen bukaerarako nekazaritza tradizio-nalarekin bukatu nahi du. Hortaz, ohiko nekazaritza egiten ari den laborariak jakin behar du ezinez-koia izango zaiola aurrera egitea».

Besteak beste Norvegian, Ale-manian, Frantzieta eta Erresuma Batuan ekoizle ekologikoek duten indarrarekin eta merkatuarekin



Azokan. Barazki ekologikoak Gasteizko Abastos plazan, Izarlutene postuan. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

■ Nekazaritza ekologikoa Hego Euskal Herrian

Azalera (hektarea)	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Hego Euskal Herria
Nekazaritza Ekologikoan kalifikatua	123,81	216,07	281,22	26.701,6	27.322,1
Konbertsioan kalifikatua	140,02	11,22	85,07	146,73	383,04
Kalifikatu gabea (lehen urtea)	116,51	71,88	3,38	458,48	650,25
Guztira	380,34	299,18	369,68	27.306,8	28.356

Produktoreak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Hego Euskal Herria
Ekoizleak	37	38	61	580	716
Egileak, importatzaileak, biltegizainak	13	12	23	87	134
Guztira	50	50	84	667	850

Labore nagusiak herrialde bakoitzeko

Araba	hektarea	%	Bizkaia	hektarea	%
Zerealak	114,35	30,06	Larreak	168,86	56,44
Larreak	78,35	20,6	Belardiak eta bazka	65,67	21,95
Mahastiak	74,61	19,61	Fruta arbolak	31,38	10,48
Gipuzkoa	hektarea	%	Nafarroa	hektarea	%
Belardiak eta bazka	218,03	58,97	Lugorria eta ongarri berdeak	7.729,75	28,32
Larreak	82,81	22,4	Zerealak	7.400,47	27,11
Fruta arbolak	46,28	12,51	Larreak	4.333,49	15,87

ITURRIA: EKONEKAZARITZA ETA NAFARROAKO NEKAZARITZA PRODUKZIO EKOLOGIKOAREN KONSEILUA

txunditurik dago Samaniego. Be-zeroari begira, haatik, hemen ere zer eskaini badutela uste du. «Geurea garestiagoa izan beharko litzateke, baina ikusten dugu ohiko nekazaritzaren salneurrien parean gaudela, edo azpitik, eta zer esanik ez labeleko produktuekin alderatuz gero».

Idoia Beloso Bakioko (Bizkaia) baserritarra da. Duela hamar urte hasi zen soroa landatzen, «etxera-ko». Alta, duela urte eta erdi eraikuntza enpresa batean egiten zuen lanarekin aspertuta, lanpostua utzi eta nekazaritza ekologikari heldu zion. Barazkiekin hasi zen, baina orain arrautza ekologi-koak produzitzeko prestatu nahi du soro bat, eta baserrian duten laba zaharra ogia egiteko konpon-zeo asmoa du.

Betidanik elikagai ekologikoen inguruko kezka izan du. Ez du su-matzen gizartean ardura bera da-goenik, oraingoz. «Hainbeste eti-keta eta markarekin, jendeari kostatzen zaio ezberdin-zea. Batzuek labeleko produktuak eta ekologi-koak berdinak direla uste dute». Edonola ere, bizitza duina aurrera ateratzeko moduko lanbidea dela argi du.

Ipar Euskal Herrian, laguntzak zalantzat

«Frantziak urtez urte apaldu ditu diru laguntzak», dio Thomas Ergik, BLE Biharko Lurraren Elkar-teko kideak. «Ez dute epe luzeko ikuspegirik. Hego Euskal Herrian badira laguntzak laborantza biologikoa mantentzeko. Frantziak Europako laguntza hori bere sisteman ez hartzea hautatutu du. Hori hautu arrunt politikoa da. Politika argi bat behar da laborantza biologikoa sustatzeko. Hori gabe, labo-rariekin edo ulertzen. Badira la-borari militanteak, urratsa eginen dutenak».

Baina Frantziaren eta Paueko laborantza ganberaren laguntza politikak laborari gehienak labo-rantza biologikoaren bidean ez sartzea eragiten duela dio BLE el-karteak. Paueko laborantza gan-berak «laborantza arrazoitua-re» hautua egin du, hots, transgeniko-ekin eta pozoiak erabiltzen dituen laborantzarena. «Hots, laborantza biologikoaren aurkakoa».

Gaur egun, Ipar Euskal Herriko 155 etxalde ari dira laborantza biologikoan. Batzuek ardi gasna ekoizten dute, beste batzuek behi haragia, ahutz gasna, fruituak eta abar. Ia denek beren ekoizpenak zuzenki saltzen dituzte, etxe-an bertan edota merkatuetan.

Laborantza biologikoan ari dire-nek ez dute sarerik antolatu ekoiz-penak saltzeko. Zirkuitu bereziak eta merkatuak erabiltzen dituzte horretarako, batez ere. «Kontsu-mitzaleek produktu biologikoak galdetzen dituzte, bereziki baraz-kiak, ogia, esnea, arrautzak...», dio Ergik. Eskaera horri erantzu-teaz gain, laborarien lana «ongi pa-gatzeko» zirkuitu berrien bila da-biltza beti.

«Nekazaritza ekoizpenetik %3 da gaur egun ekologikoa, baina %20 izatera iristea posible da»

JOSE ANTONIO SUSO
NEKAZARITZA POLITIKAREN SAILBURURDEA

«Ohiko nekazaritzan dabilen laborariak jakin behar du ezinezkoia izango zaiola aurrera egitea»

JOSU SAMANIEGO
EKOIZLE BIOLOGIKOA

«Paueko ganberak nekazaritza arrazoitua-ren alde egin du. Hots, biologikoaren aurkakoa»

THOMAS ERGI
BIHARKO LURRAREN ELKARTEA